

Literatura

Pentsamenduaz honaindi

Hasier Rekondo

Felipe Juaristiren (Azkoitia, 1957) poesia pentsamenduaren poesiaren eremu zabalean lekutu ohi da; egileak berak beste poeta batzuekin batera duela zenbait urte sinatutako manifestuak horrela zioen: «Platonengandik poesiak, poetak, kondena jaso zuen. Ez du poetak errealitatearen batasuna Platonek aldarrikatzen zuen moduan ikusten, baina bere hitzetan, poetaren hitzetan, ahalegina dago». Hartara, oraingo honetan iruzkintzera gatozen *Piztutako etxea* (Erein, 2014) honetan kondena hori arintzeko xedez datorrigu berriro poeta, eta poeta handiek bakarrik eskain dezaketen ahalegina eta soiltasuna darabiltza, neurritzko hegaldi poetikoa eraikiz. Ahalegin horrek bere fruituak oharitu dizkio bai poetari eta bai Juaristiri berari, Felipe Juaristi poetaren anabasatik askatzeko, etxea piztearen ekintza lagungarri baitzaio Felipe Juaristi pertsonari: «Behar bada, zeuk engainatu duzu zeure burua. / Baina ez duzu etsi, besteetan bezala. / Se-


kula ez zara hain zu izan, / sekula ez dira hain baturik egon / zure barne eta zure kanpoa».

Manifestuari berriro erreparatu, ez naizela batere manifestu zale aitortu arren, «Poetak, artifiziorik gabe, pentsamenduen erroetan sakontzen du, baina jakinda errealitatearen batasunera ez dela helduko, eta ez da bere asmoa». Batasun horretara ez baldin bada guztiz heltzen ere, Ludwig Wittgensteinen ezintasuna lekuko, nago Juaristik nahiko gertutik dakusala liburu honetan batasun deitu litekeen etxe bat, gustuko ez dituen larregiko artifiziorik gabe, gorputza bidai-de. «Odo! isuri gara, non bizi diren koloretako arrainak».

«Zer tarako poesia Auschwitz eta gero?» Adornoren aipuak zabaltzen duen XVII. poema gogoangarrian, honela mintzo da: «Hitzak garaiuz baino lehenago hazi dira aurten». Eta aurrerago: «Hildakoez ez dakite hilik daudenik. / Bizirik daudenek ere ez dakite bizirik daudenik». Poesia, zerbaite-rako baldin bada, hilda edo bizirik gauden jakiteko da. Eta, poetaren eginkizuna,

holokaustoaren ondorengo galdera erantzun ezinei aurrea edo atzea hartzea litzateke, anabasan biziko baita beti. Baina holokaustoa ez da bakarrik postarentzat, badira gureak ez diren holokaustoa ere. «Beste fantasma batzuk ekarri, zurbilago eta barregarriagoak, / ur gardenetan hiltzen direnak, ez dezaten gorputz hartu / Apokalipsiko zaldumen baitan».

Juaristiren seigarren poesia liburua dugu honako hau, poetak dagoeneko lortua du pisuzko



‘PIZTUTAKO ETXEA’

■ Egilea: Felipe Juaristi.
■ Argitaletxea: Erein.

obra, baina beti dabil ezustekoa-ren bila. «Espero dena espero izatea esperantzaren esperantza da», dio, Heraklitoren aipu bati jarraiki. Hogei poemek osatzen dute poemario laburra; horretako bakoitzaren atarian aipu esan-guratsuren bat oparitzen digu poetak: Spinoza, Einstein, Ovidio, Yeats, Lacan...

Esan bezala, Juaristik ez du behar larregiko tramankulu poetikorik poetaren kondena arintzeko, baina bere metaferek laku isil batean barreiatzen den uhinarek indarra dute. Poetak sobera ditu metafora hanpatuak eta maisua da neurritz erabiltzen. Kondena gozagarri zailo, nolana ere, poetari; ez du presarik poemak eta le-rrorak leunki harilkatzeko.

«Ahantziak ezarri digu bere liturgia, / presarik ez duen negu honetan. / Nik ere ez dakit aurten / zein aldetara eroriko diren sagar-rak». Hamar urte igaro dira Juaristik poesia liburu bat ondu zuenetik, esango nuke itxaronaldiak merezi izan duela; neurri handi batean, poesia zaleak salbatu gaituelako, liburu honetako poema baten sokari tirako.



‘LEHEN MUNDU GERRA ETA EUSKAL HERRIA’

■ Egilea: Eneko Bidegain.
■ Argitaletxea: Elkar.

Lehen Mundu Gerrak milioika lagun heriotza eragin zuen 1914 eta 1918 artean. Haien artean lapurtar, baxenabartar eta zuberotar ugari, Frantziak borrorak deituak. Liburu honek Euskal Herriko ikuspegitik kontatzen du Lehen Mundu Gerra, aurrekariak zein ondorioak aztertuz, eta baita soldaduen bizitza ere.

‘ALFERRIK EZ BALITZ’

■ Egilea: Karlos Linazasoro.
■ Argitaletxea: Elkar.



■ Egilea: Karlos Linazasoro.
■ Argitaletxea: Elkar.

Guztira, 1.000 aforismo bildu ditu Karlos Linazasorok liburu honetan, bakoitza bere zenbakia ondoan duela. 2009 eta 2013 bitartean idatzitakoak dira. Aurretik ere, landua du generoa *Isiltasunaren adabakiak* (Pamiela, 2003), *Beti eder dena* (Erein, 2006) eta *Esan gabe doaz* (Utrisque Vasconia, 2009) liburuetan.



‘MAILOPEKO EUSKARA’

■ Egilea: Koldo Zuazo Zelaia.
■ Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Beteluko, Errazkingoa eta Lezaetako gain, Arantzibarreko sei herrietako euskara aztertu du Koldo Zuazok: Arribe, Atallu, Azkarate, Uztegi, Gaintza eta Intza. 2.565 sarrerako hiztegia osatu du, 148 azpisarrerarekin, 310 esapiderekin, 171 esaera zaharrekin eta sei hitz-jokorekin.

Libertateari esker eta zor

Mikel Asumendi

Euskal kultura auzitan jarri zuen *Euskal kultura?* saio laburrean (Juan Zelaia Saria, 2008) eta *Libertitzeaz* saio mar-dularrean heldu zaigu orain. Antton Luku baxenabartarrak (Kalifornia, 1959) ez du astia alferrik xahutu. Errana diot: «Hau idatzit ondoren, hil zaitezke lasai!».

Euskal dantzari eskainia da liburua. Ezinbertzean hala izatea. Bai, saioa endelegatzeko hobe dantzari izatea edo dantza-ren mundua ezagutzea. Halakoa duzu saioegilea, dantzaria. Dantzaria ez ezik, antzerkigilea. Alabaina, Luluk ez du antzerkia bere egiten, berau dantzaren baitan eman gabe. Zer ote antzerkia, ordea? Zer ulertzen dugu antzerkia?

Galdera franko, eiki. Idazleak arrapostu anitz eman dizkigu haatik. Antzerkia zer ote? Bada, Libertimendua. Tobera. Karrusa. Maskarada... Baxenabarren bereziki —Lapurdik mugatik Zuberora bitarte— eta Baigorri, Garazi eta Amikuzen partikularki. Antton Luku inongo bada, hor-koa baita.

Ez horkoa bakarrik. Izan, Luku

basokoa da, bortuetako basajau-na. Bortuetatik jausten den bolanta, herensugearen antzerkioa. Zer ote bolanta? Zoaz Luzaidera! Eta, bidenabar, Okabeko harrespila bisitatu. *Libertitzeaz* eraman ezazu galtzarbean: Jorge Oteiza, Juan Antonio Urbeltz, Piarres Larzabal, Daniel Landart, Eñaut Etxamendi edota Gil-llom Irigoien izanen dituzu bidai-de. Ez horiek bakarrik, xumeagoak ere badituz: Anttoni Etxako, Aintziburu, Xeaxtian Iñidoi edota Galtzet. Ezin denak aipatu.

Eta den-denak ere ez dira halakoak. Nicole Lougarot edota Mixel Etxekopar (honekiko gogaidetasun franko ukatu gabe), konparazioz, ez ditu arras gogaide (ez dira bakarrik ere). Luku bere «egia» ekartzen entseatzan da, katzakan, baina errespetuz. *Politiquement correct* espresioa heldu zait pentsamendura: Antton Luku nehor bada, juxtu izate horren ifrentzua da.

Saioegileak euskal kultura auzitan eman du berriz ere, horren transmisioa arranguraz bizi du. Euskal kultura euskaraz baino ez du endelegatzen. Agian, hegoaldean aburtia aski barneratua da, Iparraldean ez horrenbeste.

Euskara kinkan dago. Ofizialtasunaz honat eta haratago, euskararen arima hilzorrian baitago. Hain zuzen ere *Libertitzeaz* kultur saioa izanagatik, berau ezin da politikari behatu gabe ulertu. Iparraldeko politika ez ezik, jendartea eta historia endelegatzeko berebiziko saioa da.

Berebizikoa eta berealdikoa. Barka itzazue adjektiboak, baina euskal kultura gure aldiaren jokatzen da. Gurea, politika nahiz kultura, edota biak batean, *Com-*



‘LIBERTITZEAZ’

■ Egilea: Antton Luku.
■ Argitaletxea: Pamiela.

media dell'Arte daude, eta bere baitan ulertu behar dira. Alta, saioegile eruditu bezain xume honi ontsa konprenitu badiot, *bolantak* eta *santibatek* zer diren barnerratu gabe, euskal kulturari izanen ote? Bertsolari *zirzikik* gabe, inauteri ba ote? Inauteri zinez bizi gabe, ba ote folkloereri-riaz beste?

Ez da dantza edo antzezkiak egiten, dantzan ar(i)tzen da eta kultura bizitzan jokatzen. Kultur abangoardistatik nahiz eliteko kulturetatik edanik ere, Anttonen emana Behorlegi menditik jausten den ura bezalakoa da. Naturatik heldu eta herri iturrian isuria.

Ez da *kultura* akats ortografiko-rik gabe idazten duena, egungo *politika* eta *kultura* hastialaz oharitzen ez dena baizik. Lasai egon dadila egilea, saioa ez da luzea. Luzea, euskaldun biziko ba-gara, egiteko dugun bidea da.

Ba ote txapelik gabeko bertsolaritzaz izaterik? Ba ote kulturari, goiti beheiti ezarritako sistemaren doinu edo hitzez honagorik? Libertaterik barik ba ote libertimendurik?

Libertimenduari zor *Libertitzeaz*, saio aparta.